**I. eranskina**

**Gai-zerrenda**

**I. partea**

1. gaia.–Itzulpena: definizioa eta itzulpen-motak. Itzulpenaren printzipio, prozesu, teknika eta baliabideak.

2. gaia.–Itzulgarritasuna eta itzulezintasuna. Itzulpengintza eta kulturak. Munduari buruzko ikuskerak.

3. gaia.–Itzulpen intersemiotikoa, intralinguistikoa eta interlinguistikoa.

4. gaia.–Itzulpenaren teoria: ikuspegi teoriko nagusiak.

5. gaia.–Itzulpenaren teoria: gaur egungo joerak.

6. gaia.–Itzulpenaren teoria: Vinay-Darbelnet.

7. gaia.–Itzulpenaren teoria: E. A. Nida.

8. gaia.–Itzulpenaren teoria: L. Venuti.

9. gaia.–Itzulpenaren teoria: I. Even-Zohar.

10. gaia.–Itzulpenaren teoria. Ikuspegi funtzionalistak: Skopos teoria. C. Nord.

11. gaia.–Itzulpenaren teoria. Ikuspegi komunikatiboak: B. Hatim eta I. Mason.

12. gaia.–Baliokidetasunaren arazoa itzulpengintzan. Baliokidetasun motak.

13. gaia.–Itzulpengintza egungo munduan (I): itzulpengintza eta ideologia; itzulpengintza eta feminismoa; itzulpengintza eta postkolonialismoa.

14. gaia.–Itzulpengintza egungo munduan (II): itzulpengintza eta teknologia berriak; ikus-entzunezko itzulpena; lokalizazioa; itzulpengintza kolaboratiboa, komunitate-itzulpengintza, crowdsourcinga edo CT3; itzulpengintza profesionala eta borondatezkoa.

15. gaia.–Itzulpengintza egungo munduan (III): itzulpengintza espezializatua; itzulpengintza zientifikoa eta teknikoa; itzulpengintza marketinean eta publizitatean.

16. gaia.–Itzulpengintza eta elebitasuna. Itzulpengintzaren eginkizuna gizarte eta administrazio elebidun edo eleaniztunetan. Itzulpengintza eta korredakzioa.

17. gaia.–Itzulpengintza eta hizkuntza minorizatuak: itzulpenaren beharra eta itzulpengintza normalizaziorako tresna gisa. Euskararen kasua: berariazko arazoak.

18. gaia.–Itzulpengintzaren rola Administrazioko euskararen normalizazioan. Administrazioko hizkeraren ezaugarriak euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan. Hizkuntza estandarra eta Administrazioko hizkera: loturak eta diferentziak.

19. gaia.–Fideltasuna, argitasuna eta komunikagarritasuna testu administratibo eta juridikoen itzulpenetan. Euskararen eta gaztelaniaren kasua itzulpen administratibo eta juridikoetan: irizpideak eta estrategiak.

20. gaia.–Itzulpenaren arazo nagusiak euskara-gaztelania binomioan. Esaldiaren antolamendua gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenetan.

21. gaia.–Hizkuntza arrunta eta espezialitateko hizkuntza. Erregistro linguistikoak.

22. gaia.–Estilo- eta hizkuntza-liburuak. Estilo-liburu nagusiak euskaraz.

23. gaia.–Itzulpenen kalitatea. Berrikuspena eta zuzenketa. Zuzenketa-lana. Irizpide nagusiak. Metodologia. Zuzenketaren garrantzia ordenagailuz lagundutako itzulpenetan.

24. gaia.–Ordenagailuz lagundutako itzulpena (OLI tresnak): itzulpen-memoriak eta terminologia kudeatzeko tresnak. Itzulpen automatikoa: ereduak. Itzulpen automatikoa euskararen kasuan.

25. gaia.–Itzultzaile automatikoak: haien erabilera, haiekin lan egiteko prozedurak, postedizioa, euskararako itzultzaile automatikoak.

26. gaia.–Itzulpengintzaren historiako gertakari nagusiak: ekarpen praktikoak eta teorikoak historian barna.

27. gaia.–Euskarazko itzulpengintzaren historia: bilakaera eta gertakari historiko nagusiak.

28. gaia.–Interpretazioa: kontzeptua, ezaugarriak eta historia; interpretazioaren berezitasunak itzulpenarekin alderatuta.

29. gaia.–Interpretazio-modalitateak eta -teknikak. Interpretaziorako behar diren trebetasunak.

30. gaia.–Sekretu profesionala, etika eta deontologia itzulpengintzan.

31. gaia.–Itzultzaileen ikusgarritasuna eta ikusezintasuna. Lan-estatusa eta elkargo profesionalak.

32. gaia.–Itzulpengintzarako baliabideak eta tresnak: hiztegiak, entziklopediak, terminologia-bankuak, corpusak, hizkuntza-kontsultarako zerbitzuak, zuzentzaile automatikoak eta bestelako tresna informatikoak, Internet...

33. gaia.–Terminologiaren oinarriak. Terminologia-bankuak.

34. gaia.–Terminologia eta itzulpengintza. Euskarazko eta gaztelaniazko terminologia juridiko-administratiboa.

35. gaia.–Terminologiaren problematika itzulpengintza administratiboan. Terminologia administratiboaren baterakuntza euskaraz.

36. gaia.–Hizkera inklusiboa eta ez-sexista euskaraz eta gaztelaniaz. Hizkera sexista ekiditeko baliabideak euskaraz.

37. gaia.–Hitzen ordena perpausaren barnean euskaraz: ordena markatua eta ordena markatu gabea; euskarazko tradizioak ordenari dagokionez; galdegaia, mintzagaia eta iruzkina; testu-antolatzaileen eginkizuna.

38. gaia.–Deklinabidea euskaraz: definizioa; formak eta kasuak; kasu-formen aldaerak hitzen ezaugarrien arabera; deklinabide mugagabea; deklinabidearen inguruko problematikak itzulpenetan.

39. gaia.–Euskal lexikoa: hitzak sortzeko bideak; hitz elkartuak eta eratorriak.

40. gaia.–Hizkuntza-maileguak eta neologismoak. Zabalkuntza semantikoa, berrezarpen lexikala eta berrikuntza fonologikoa.

41. gaia.–Euskal ortografia: arau nagusiak; puntuazio-markak.

42. gaia.–Ortotipografia euskaraz (I): aldaera tipografikoak, komatxoak, barrak, marrak eta bestelako zeinuak erabiltzeko irizpideak.

43. gaia.–Ortotipografia euskaraz (II): letra larriak erabiltzeko irizpideak eta maileguak eta hitz elkartu eta eratorriak idazteko erak.

44. gaia.–Laburdurak, siglak eta sinboloak euskaraz eta gaztelaniaz. Sinboloen adierazpena zientziaren eta teknikaren esparruan.

45. gaia. –Zientziarako eta teknikarako euskara arautzeko gomendioak.

46. gaia.–Ortografia eta ortotipografia gaztelaniaz: arau eta irizpide nagusiak; ortografiako eta ortotipografiako eskuliburuak gaztelaniaz.

47. gaia.–Euskarazko onomastikarako irizpide eta erabakiak.

48. gaia.–Estiloa euskaraz: problemak, irtenbideak, gomendioak eta irizpideak.

49. gaia.–Kalko okerrak. Euskaraz kalko okerrak saihesteko formulak.

50. gaia.–Euskarazko morfosintaxiaren inguruko problema eta zalantza nagusiak.

51. gaia.–Euskaltzaindia: hizkuntza-baliabideak; argitalpenak; Euskaltzaindiaren webgunea; Euskara Batuaren Eskuliburua eta haren edukiak.

52. gaia.–Euskalkiak eta euskalkien aldaerak. Literatura-euskalkiak. Hizkuntza estandarra eta euskalkiak: erabilera-esparruak.

53. gaia.–Nafarroako euskalkiak: bilakaera, ikerketak eta proposamenak. Nafarreren ezaugarri nagusiak eta haien tokia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren itzulpen-produkzioan.

54. gaia.–Euskara Nafarroan: egoera juridikoa, demolinguistikoa eta soziala; Europako, Espainiako eta Nafarroako araudia.

55. gaia.–Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak: elebitasuna, diglosia, hizkuntza-gutxiengoak, hizkuntza gutxituak. Euskara hizkuntza gutxitua.

56. gaia.–Hizkuntza-normalizazioa: hizkuntza baten normatibizazioa eta estandarizazioa; estandarizazio ereduak; euskararen estandarizazioa.

57. gaia.–Toponimia: haren inguruko baliabideak; problematikak eta kontuan hartu beharrekoak itzulpen-lanean.

58. gaia.–Euskararen egoera Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoaren azken urteotako plan estrategikoetan.

59. gaia.–Euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuetan. Unibertsitatean Hizkuntza Plangintza Diseinatzeko Oinarriak.

60. gaia.–Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara erabiltzeko jarraibideak eta gidaliburua.

**II. partea**

1. gaia.–Unibertsitatea zerbitzu publiko gisa. Unibertsitateei buruzko Lege Organikoa. Unibertsitateen autonomia eta bere mugak. Unibertsitate publikoen araubide ekonomiko eta finantzarioa.

2. gaia.–Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak. Edukia eta egitura. Estatutuen erreforma. Unibertsitateko kideen arartekoa.

3. gaia.–Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Irakasle eta ikertzaileak: motak eta araubide juridikoa. Plantilla antolatzeko jarraibideak. Unibertsitateko irakasleen ebaluazioa. Lanpostuen zerrenda. Unibertsitateko irakaskidegoak: araubide juridikoa (sarbidea, administrazio-egoerak, arduraldia eta ordainsariak). Irakaskidegoetako lanpostuak betetzeko prozesua.

4. gaia.–Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Administrazioko eta zerbitzuetako langileak. Araubide juridikoa eta motak. Lanpostuen zerrendak. Ordezkaritza-organoak, lan-baldintzak zehazteko prozedura eta langileen parte-hartzea.

5. gaia.–Ikertzaileen kontratazioa Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Arau-esparrua eta kontratatzeko politikak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaileak kontratatzeko arautegia (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2017ko ekainaren 7koa).

6. gaia.–39/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Atariko titulua: "Xedapen orokorrak" (1. eta 2. artikuluak). I. titulua: “Prozedurako interesadunak”, I. kapitulua: Egintzarako gaitasuna eta interesdunaren kontzeptua (3. artikulutik 8.era). II. titulua: “Administrazio Publikoen jarduera” (13. artikulutik 33.era). III. titulua: “Egintza administratiboak (34. artikulutik 52.era).

7. gaia.–39/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. IV. Titulua: “Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (53. artikulutik 105.era). V. titulua: “Administrazio-bidezko egintzen berrikuspena (106. artikulutik 126.era).

8. gaia.–40/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Atariko titulua: “Sektore publikoaren xedapen orokorrak, jarduteko printzipioak eta funtzionamendua” (1. artikulutik 53.era).

9. gaia.–40/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. II. titulua: “Sektore publiko instituzionalaren antolamendua eta funtzionamendua”. I. kapitulua: “Jarduteko printzipio orokorrak” (81. artikulua). VI. kapitulua: “Partzuergoak” (118. artikulutik 127.era) eta VII. Kapitulua: “Estatuko sektore publikoaren fundazioak” (128. artikulutik 136.era). III. titulua “Administrazioen arteko harremanak”, I. kapitulua: “ Administrazioen arteko harremanen printzipio orokorrak (140. artikulua), II. kapitulua: “Laguntzeko betebeharra” (141. eta 142. artikuluak), IV. kapitulua “Administrazioen arteko harreman elektronikoak” (155. artikulutik 158.era).

10. gaia.–Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolamendua. Xedapen orokorrak. Unibertsitateko ikasketa ofizialen egitura. Graduko, masterreko eta doktoretzako unibertsitateko ikasketa ofizialak. Kredituen europar sistema eta lurralde nazional osoan ofizialak eta baliodunak diren unibertsitateko titulazioetako kalifikazio-sistema. Tituluaren Europako Gehigarria.

11. gaia.–Irakaskuntza mota desberdinak, irakaslana eta ikasketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Titulu ofizialak eskuratzeko zerbitzu akademikoak emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoei buruzko Foru Agindua. Bekak, dirulaguntzak eta salbuespenak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketa berekiak.

12. gaia.–2/2018 Foru Legea, 2018ko apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Atariko titulua. (1. artikulutik 8.era). I. titulua: Xedapen orokorrak: Botere esleitzaileak (9. artikulutik 11.era), Kontratistak 1. sekzioa. Gaitasuna eta kaudimena (12. artikulutik 21.era). Kontratu motak eta araubide juridikoa (27. artikulutik 38.era).

13. gaia.–2/2018 Foru Legea, 2018ko apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Kontratazio publikoa kudeatzeko printzipio eta arauak (39. artikulutik 45.era), Publizitate arauak eta adjudikazio prozedurak (46. artikulutik 103.era).

14. gaia.–11/2005 Foru Legea, 2005eko azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Atariko titulua. Xedapen Orokorrak. I. titulua: "Emateko eta kudeatzeko prozedurak" (17. artikulutik 33 bisera). II. Titulua: "Dirulaguntzak itzultzea" (34. artikulutik 37.era). IV. Titulua: "Arau-hausteak eta zehapenak" (42. artikulutik 46.era).

15. gaia.–Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuak eta haiek betearazteko oinarriak.

16. gaia– Kalitatea LOUn eta NUPeko Estatutuetan.

17. gaia.–ANECA. Tituluen ebaluazioa. Ebaluazio instituzionala: unibertsitateko titulu ofizialen egiaztapena eta akreditazioa. MONITOR eta ACREDITA programak.

18. gaia.–19/2013 Legea, 2018ko maiatzaren 17koa, Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernamendu Onari buruzkoa.

19. gaia.–31/1995 Legea, 1995eko azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. III. kapitulua: eskubide eta betebeharrak. IV. eta V. kapituluak: prebentzio-zerbitzuak. Langileen kontsulta eta parte-hartzea.

20. gaia.–3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuen babesa Nafarroako Unibertsitate Publikoan.